PAISAIA. Bitakora kaiera

## Asmatu nor naizen

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- PLASTIKA.

## HELBURUA

 Urtaroen aldaketek paisaiari dakarzkioten ezaugarriei antzematea.

## Ariketaren prozedura

**Lehenengoz**, hurrengo asmakizunak esango dizkiegu. Nor naiz ni?:

- **1.** Nire haize gogorraz zuhaitzetatik hostoak botatzen ditut.
- **2.** Nik hotza ekartzen dut, eta askotan baita elurra ere.
- **3.** Nire egun beroetan hondartzara joan eta itsasoan bainatzen zara.
- **4.** Nik lorategiak lorez eta zuhaitzak hostoz betetzen ditut.

Asmakizuna igarri ondoren, fotokopiagailuan handituta eman ahal zaizkie fitxa

honetako irudiak, goiko
elementuak ebaki
eta beheko
marrazkian
itsasteko.
Horren ostean,
dena margotu
eta bururatzen
zaizkien beste
elementu batzuk
erants ditzakete.









